

HERRIAREN GOBERNU BATZORDEAK 2024KO EKAINAREN 4an HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

Azpeitian, 2024ko ekainaren 4an, Udaletxeko bilkura-areto nagusian elkartu da Herriaren Gobernu Batzordea lehenengo deialdian eta ohizko bilkuran, aztergai-zerrendako gaiak eztabaidatu eta erabakitzeko. Nagore Alkorta Elorza alkatea buru dela, eta batzarra osatzen duten zinegotzi denak bertan direla.

Honako akordioak hartu dira:

1.- Herriaren Gobernu Batzordeak 2024ko apirilaren 16an eta maiatzaren 13an egindako bilkuren akta onartu du.

2.- Azpeitiko HAPO-ren 31.Trukutxoko H.E.rako plan partzialaren hasierako onarpena eman da.

3.- Azpeitiko HAPO-ren 31. Trukutxo H.E.rako urbanizatzeko jarduketaren programaren hasierako onarpena eman da.

4.- Obra baimena ematea adostu da, Izarraitz Auzoa 70n dagoen Egurtza-Goikoa baserria birgaitzeko eta bertan bigarren etxebizitza bat egokitzeko.

5.- Obra baimea ematea adostu da, Izarraitz Auzoa 72n dagoen Egurtza-Azpikoa baserria birgaitzeko eta bertan bigarren etxebizitza bat egokitzeko.

6.- Magdalena auzoan 03-089 lursailean egin diren ezkutuko lanak legeztatzeko eskatutako hirigintza baimen eskaera hurrengo bilkuran jorratzea erabaki da.

7.- Ez dago galdera edo erregurik.

Azpeitia, 2024ko ekainaren 21a
UDALAREN IDAZKARIA,
Olatz Eizaguirre Orbegozo

